

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4970

EBAZPENA, 2013ko urriaren 15ekoa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegorako interesgarriak diren gaietako espezializazio-ikasketak atzerrian egiteko bekak berriztatze 2013-2014 ikasturterako deialdia ebazteko dena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2013ko maiatzaren 28an emandako Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegorako interesgarriak diren gaietako espezializazio-ikasketak atzerrian egiteko beken 2013-2014 ikasturterako deia egin zen.

Agindu horren 12. artikuluan ezartzen denez, bekak berritzeko eskabideak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak ebatziko ditu, betiere balorazio batzorde batek egindako proposamena aintzat hartuta. Honako hauek izango dira batzorde horretako kideak: Unibertsitateko zuzendaria, Zientzia Politikarako zuzendaria eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzako teknikari bat.

Hori guztia kontuan izanik, bekak berritzeko deialdira aurkeztutako eskabideak aztertuta, eta Balorazio Batzordeak proposatutakoa aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– IA eranskinean agertzen diren hamar pertsoneri beka berritzeko eskaera onartzea, eta IB eranskinean agertzen den pertsonaren eskaera ez onartzea, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegorako interesgarriak diren gaietan espezializaziorako ikasketak atzerrian egiteko 2013-2014 ikasturtean.

Bigarrena.– Beka horien diru-zenbatekoa, iraupena eta gainerako baldintzak, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera izango dira.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren aurrean, hilabete epean, ebazpena Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web-orrian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, hala ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 15a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
ITZIAR ALCORTA IDIAQUEZ.

2013ko azaroaren 15a, ostirala

I.A. ERANSKINA
BERRIZTAPENAK
ONURADUNEN ZERRENDA

| Deialdia. | NAN | Esp. zk. | Matrikula (€) | Bidaia (€) | Egonaldia (€) |
|-----------|-----------|----------------|---------------|------------|---------------|
| 2012 | 44164835M | Mas_2013_1_172 | 600,00 | 600,00 | 16.063,00 |
| 2012 | 44170225J | Mas_2013_1_172 | 1.835,00 | 600,00 | 18.160,00 |
| 2012 | 44566436A | Mas_2013_1_152 | 1.835,00 | 600,00 | 21.792,00 |
| 2012 | 44688600Z | Mas_2013_1_174 | 6.000,00 | 300,00 | 16.681,00 |
| 2012 | 72485957P | Mas_2013_1_232 | 4.000,00 | 300,00 | 16.046,00 |
| 2012 | 72496123P | Mas_2013_1_185 | 0,00 | 1.000,00 | 14.964,00 |
| 2012 | 72507230Y | Mas_2013_1_161 | 0,00 | 600,00 | 20.673,00 |
| 2012 | 72579748M | Mas_2013_1_153 | 474,00 | 300,00 | 10.896,00 |
| 2012 | 72585187Q | Mas_2013_1_181 | 610,00 | 300,00 | 17.141,00 |
| 2012 | 78926213B | Mas_2013_1_204 | 0,00 | 600,00 | 16.344,00 |

2013ko azaroaren 15a, ostirala

I.B. ERANSKINA
BERRIZTAPENAK
BAZTERTUAK

| Deialdia | NAN | Esp. zk. | Arrazoia |
|----------|-----------|----------------|---|
| 2012 | 45890857S | Mas_2013_1_283 | Dokumentazioa ez da zuzena / Ez du betebeharrira betetzen |